

Izena: _____

Abizenak: _____



BASQUE ULTRA TRAIL SERIES - MEDIKU ZIURTAGIRIA

(*). Informe honen bitartez, _____
Jauna/Andrea, beherago sinatzen duen mediku honek, _____ kolegiatu zenbakiarekin,
_____ probintzian/herraldean lanean eta bertan erregistratua .hurrengo adierazten
dut: (Izen-bizenak) _____
NAN/Pasaporte zenbakiarekin eta (jaiotze-data) _____ jaioa aztertu ondoren, lehiaketa
honetan parte hartzeko GAI dela:

- Basque Ultra Trail Bilbao-Gasteiz
- Basque Ultra Trail Gasteiz Iruña
- Basque Ultra Trail Iruña-Donosti
- Basque Ultra Trail Donosti-Bilbao

100 km baino gehiagoko lasterketak.

Medikuaren sinadlekua eta datura eta zigilua:

a: _____

8. artikulua: MEDIKU-ZIURTAGIRIA

Izen-ematea egin ahal izateko partaideak mediku-ziurtagiria bidali beharko dio antolakuntzari posta arruntez edo e-mail bidez (inskrizioak@basqueultraultra.com). Antolakuntzak, beranduenez, izena emateko epea ixten den egunean eduki beharko du agiri hori.

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lasterketa batean baino gehiagotan izena ematen dutenek nahikoa izango dute mediku-ziurtagiri bakar bat bidaltzea. Korrikalari horrek izena eman duen lehen lasterketarako izen-emate epea ixten den egunean eduki beharko du antolakuntzak agiri hori, beranduenez ere.

Partaideak ez badu ziurtagiri hori adierazitako epean bidaltzen, izen-ematea baliogabetu egingo da eta korrikalariak izen-ematearen zenbatekoa itzultzeko eskubidea galduko du.

Mediku-ziurtagiriaren data gehienez ere probaren eguna baino sei hilabete lehenagokoa izango da, eta, beraz, sei hilabetetik gorako antzintasuna duten ziurtagiriak ez dira onartuko.

Persona batek BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lasterketa batean baino gehiagotan ematen badu izena, lehen probarako aurkezten duen mediku-ziurtagiria baliagarria izango da gainerakoetarako ere.

Mediku-ziurtagiriak mediku batek sinatua eta zigilatua egon behar du, eta bertan adieraziko ditu medikuaren izen-abizenak eta elkargokide zenbakia. Hori aurkeztu ezean, izen-ematea automatikoki baliogabeturik geratuko da, eta ez da izen-emate kostuaren diru-itzulketarik egingo.

Antolakuntzak, ziurtagiriaren eredu bat deskargatzeko aukera emango du BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren web gune ofizialean (www.basqueultraultra.com).